

berriak Triforio -tik



araba
álava

Kontzertuan eta irekita



Demode Quartet taldeak itxi du 'Kontzertuan eta irekita' zikloaren denboraldi arrakastatsua

Irailaren 22an, Demode Quartet taldeak itxi zuen, jendez gainezkatutako arkupearen aurrean, 'Kontzertuan eta irekita' zikloaren azken edizioa. Salmentan jarritako sarrerak agortu zituzten ikus-entzuleen aurrean egin zuen, eta, kontzertuan, betiko kantuen a capella bertsoiez gozatu ahal izan zuten bertaratuek, umorearekin nahastuta eta taldekideen nortasun izugarriarekin

apainduta. Denboraldiaren amaiera izan zen erreztaldia; ordainpeko sei kontzertu programatuak babes handia jaso zuten denboraldiaren amaiera, hain zuzen ere.

Denboraldi honetako proposamenak askotarikoak izan dira, eta oso kalitate handikoak. Honako hauek igaro dira Santa Mariaren arkupetik: Ana Alcaide, zeinak antzinako emakumeen legendetan inspiratutako proiektu musikatuak taularatu baitzuen; Contratango, tango tradizional eta garaikidearen ahots adierazgarrienak biltzen dituen



taldea; Diego Vasallo, Baladas para un autorretrato disko berria kontzertu hurbil eta intimistan aurkeztu zuena; José Tomás Jiménez, Bordon Minero saria irabazi duen gitarra-jole flamenkoa, eta Alberto Arteta, bertaratuek bere saxofoiaren erritmoarekin batera dardararazi zituen. Sei kontzertuetatik bostetan, sarrerarik ez zegoela zioen kartela eseki zen, eta, gainera, abonamenduen salmentak gora egin duela nabaritu da. Azken batean, Santa Maria Katedrala Fundazioaren eta Jazzargia Kultura eta Musika Elkartearen ekimenari beste urte batez ere babesa eman dioten 1000 ikus-entzule inguru.



TVE-k Santa Mariatik emango du meza

Azaroaren 4an, igandean, Santa Maria katedrala izango da TVEko 'El día del Señor' saioko protagonista. Egun horretan, programa erlijioso horrek zuzenean emango du 10:30eko eukaristia, kate publikoaren La 2 katean. Saio horretan, elizbarruti ezberdin baten eliza agertzen da astero.

EL SILENCIO DE LA CIUDAD BLANCA




Abuztu osoa kanpoaldeak filmatzen aritu ondoren, irailean Santa Maria katedralean itxi zen 'El silencio de la ciudad blanca' filmaren taldea (Eva García Sáenz de Urturi idazle arabarraren izen bereko nobelan oinarritzen da pelikula). Bi egunez, tenpluan gertatzen diren eszena guztiak filmatu zituen taldeak, Daniel Calparsoro zuzendaria buru zutela. Unai López de Ayala inspektoreak (Javier Rey aktoreak gorpuztuta), haren lankide Estibalizek (Aura Garrido bizitza errealean) edo Alba komisariordeak (Belen Ruedak antzetzuta), besteren artean, auzokideen eta bisitarien arretra piztu zuten. Kriptetan, nabean eta arkupean ibili ziren, tramako hilketa misterioetsuetako bat argitzeko saiakeran. Pelikula 2019ko udazkenean estreinatzea aurreikusi da.



Kultur ondareari buruzko biltzarra

Santa Maria Katedralak presentzia oso nabariak jaso ditu Kultur Ondarearen Kontrola eta Mantentzeari buruzko IV. Biltzarrean (Arabako Foru Aldundiak eta Espainiako Kontserbazio Taldeak antolatu zuten). Irailaren amaieran egin zen, hiriburu arabarrean, eta, bertan, Juan Ignacio Lasagabaster arkitekto eta Santa Maria Katedrala Fundazioko zuzendari ohiaren "Obretan eta irekita egotetik mantentze-lanetan eta irekita egotera" ponentziaz gozatu ahal izan zuten bertaratuek. Era berean, tenplua kontserbatzeko planari eta alderdi sozialei buruz hitz egin zuen Leandro Cámara arkitekto eta Fundazioko zuzendari teknikoak.



Kultura-agenda

Urriaren 13an, larunbatean, musika-proposamen interesgarria hartuko du katedraleko erdiko nabeak, Madrileko El Canto abesbatzaren eskutik. Fernando Cobo izango da zuzendaria, eta hogeita hamarretik gora kide edukiko ditu; bada, Jesus Guridi konpositore gasteiztarrari buruzko kontzertu monografikoa eskainiko dute, musika herritar eta erlijiosoaren piezekin, San Gabriel arkanjeluaren Meza, hain zuzen ere. Errezitaldia iluntzeko 20:00etan hasiko da, eta sarrera doakoa izango da.

Familia-bisitak

Familia-turismoarentzako datorren bisita urriaren 13an (larunbata) 18.00etan izango da. Gazteleraz izango da eta, bertan, haurren mintzairari egokitutako diskurtsoa erabiliko da, arazorik gabe ulertu eta gozatu ahal izan dezaten ibilbide osoaz.